# AUTÓGRAFO DEL P. AGUSTIN DE CARDABERÁZ.

Jesus-en Biotzari
Canta, edo alabantzac
Eztago cerura
beste bideric.
Jesus-en Biotza
bezalacoric.

1 Ceruco gloria
gracia eguiñic
lurrera etortcenda
Biotz artatic
Eztago cerura &c.

2. Aita Eternoa dago
beguira goitic,
bere ispillu eder au
icusteagatic.

3. Espiritu Santu
gucia andic,
Aitac ematendu
Seme-agatic

4. Jaungoicotasuna
dago or jarriric,
Biotz ori trono
eder eguiñic

5. Cerua, ta lurra
daude arrituric,
Biotz eguzqui eder
argui orregatic.

6. Virgiña Amac eztu
beste atseguiñic,
Biotz onez baño
andiagoric.

Aingueruac daude
ceru guztitic,
Biotz eder ori
...

8. Jesus-en Biotza
beguiraturic,
guretzat ez dauca,
erruqui baicic.

9. Paradisu an dauca
beti zabalic
pecatarientzat
ichi gaberic.

10. Naizute, Cristavac,
sartu bertatic
Ceruraco eztago
bide oberic.

11 Ate au idigui, ta
gu arteeagatic
Sacramentu orretan
dago ichiric.

12 Gau, ta egun daucagu
beti bacarric.
Jachi bazagu ere
guri Ceratic.

13 Gurutce santua
dauca gañetic,
arantzac, ta llaga
alde guztitic.

14. Su gar amoroso
dolorezcotic,